

Idea aurrera eramateko honako hauek beharko genituzke:

- Aplikazioak sortzen dituen lankideren bat lortu beharko genuke, informatika aldetik abila den norbait. Idea guztiak ahalik eta hoberen aplikazioan txertatuko dituen. Pertsona hori taldearen parte izango da beti. Bere lana ez da aplikazioa sortzea bakarrik izango, plataforma teknologikoaren kudeaketa egitea baita ere. Horrela puntako teknologia erabiltzen ari garela bermatuko dugu, gure bezeroei ahalik eta zerbitzu moderno eta funtzionalena eskainiz. Hark lanaldi partzialeko kontratu bat edukiko luke. Nahikoa denbora izango litzeteki aplikazioarenn jarraipen konstantea egiteko eta bideragarria da langileari diru kantitate hori ordaintzea.
- Bestalde bezeroekin harremanetan egongo den beste langile bat izango dugu. Lanaldi partzialekoa hau ere. Bere lana, erabiltzaileekin harremana izatea da; horrela gure bezeroen zalantzak argitu, iradokizunak kontuan hartu eta hobekuntzak egin ahal izango lirateke aplikazioan. Horrela etengabe eraldatzen eta hobetzen joango litzateke programa, gure bezeroei egokituz.
- Bukatzeko gu bostok egongo ginateke, negozioa kudeatzeko eta irabaziak izan arte ez dugu diru sarrerarik izango

Aliantzari dagokionean, elkarrekiko lehiakide ez diren enpresa aliantza estrategikoak burutuko ditugu. Gure helburuetako bat kuadernoak saltzen dituen enpresaren batekin aliantzak egitea da. Adibidez, eskolako kuadernoak saltzean aplikazioa musutruk eskuratzeko aukera jasoko lukete erosleak. Horrela gure produktuaren propaganda egingo genuke, gure aplikazioa ezagutzera eramateko.

Beste aliantza bat ere izango dugu, iragarkien bidez. Beste enpresari batzuk beraien produktua ezagutzera emateko, diru kantitate bat ordainduko ligukete. Honen bitartez, beraiak bere burua

promozionatzen dute eta guk iragarkiak edukitzeagatik dirua jasoko genuke.